



SARALEGIK FINAL «GOGORRA» ESPERO DU

Pilotari amezketarrak gaur jokatuko du Bigarren Mailako Binakako finala 17:30ean hasiko den pilota jaialdian » 4

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2010-03-27**

VIII. URTEA 1963. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

JOXE MARI MENDIZABAL AIZKOLARIA

«Adar bat atera ezkerro lau minutu horiek ez dira horrenbeste izango»

ADUNA Bihar 12:00etatik aurrera Tolosako zezen-plazan Joxe Mari Olasagastiren aurkako apustua jokatuko du

BALDINTZA Aizkolari bakoitzak 6.000 euro jarri ditu eta adunarrak lau minutuko aldea izango du s



Hezkuntza saileko Carlos Rivero eta Iñaki Amenabar alkatea. A. IMAZ

Pello Errota berriaren lehen harria jarri dute

ASTEASU 12 hilabete iraungo duten lanak hasteko jaialdi-ekitaldia egin zuten Eskolan »

Usabal energiaz hornituko duen makina jarri dute

TOLOSA Urtean 40.000 euro aurreztu ahal izango dira kogenerazio sistemari esker » 2



Gure Kaiola elkartearen bildu ziren omenaldian parte hartuko duten pailazoak aurkezpena egiteko. I. TERRADILLOS

PAILAZO TOPAKETA MOKOLO OMENTZEKO

TOLOSA Apirilaren 17an Leidorren pailazo ezagunak bilduko dituen ikuskizuna izango da Iñaki Odriozola zena gogoratzeko »



Martxoaren 27an denok kalera!

Erreformen aurrean langileok eredu berri bat gizarte eta lan-eskubideen murrizketa gehiagorik ez

Manifestazioa - Donostia, Boulevard 17:30

ELA-LAB-ESK-STEE/EILAS-EHNE-HIRU

Urtean 40.000 euro aurreztuko dituen kogenerazio sistema jarri dute Usabalen

Azpiegiturak » Atzo martxan jarri zuten makina berriak kiroledgi osoko energia sortuko duela espero dute.

INIGO TERRADILLOS

Kogenerazio sistema jarri dute martxan Usabal kiroledgian, eta honekin «energia aurrezteko lortuko da, ingurugiroa gehiago zaintzearekin batera». Hain zuzen ere, urtean, batez beste, 40.000 euro aurrezteko duela espero dute, makina berriak kiroledgi behar duen energiaren %80 produzituko duela aurreikusten dutelarik.

Kogenerazio sistemaren erregaia gasa da, eta horren bitartez, makinak energia sortzen du. Energia termikoa eta elektrikoa erabiltzen zituen kiroledgiak orain arte. Aurrerantzean, baina, bakarraren gatik ordezkatu nahi dira, eta kogenerazio sistemak ahalbidetuko du hori. Gasaren bidez galdarek berokuntzarako energia sortzen zuten, eta bestetik Tolargik hornituriko argindarra zegoen. Sistema berriak gasaren bidez berokuntza-



Goian sistema aurkezten. Behean, makina berria ikusten, kiroledgian, atzo. I.T.

» DATUAK

- **Zer.** Kogenerazio sistema Usabal kiroledgian.
- **Helburua.** Energia aurrezteko ingurugiroa gehiago zaintzea. Urtean 40.000 euro aurrezteko duela espero dute.
- **Aurrekontua.** Hasierako inbertsioa 271.452 izan zen. 2010eko inbertsioa 70.000eko izan da, makina martxan jartzeko kostua.
- **Sistema.** Makinak berak gasaren bidez energia sortzen du, bero-kuntza eta argindarrerako.

rako energia sortzen jarraituko du, baina, era berean, argindarrerako energia ere sortuko du. Makina bakarrak, beraz, sortuko ditu bi energiak.

5-6 urtetan «gastua amortizaturiko»

Makina Zumaian ordezkaritza duen Guascor enpresak eraiki du. Hori orostea, instalatzea eta martxan jartzeko 340.000 euroko kostua izan du, eta 2005. urtean makina erosi zutenetik joan dira ordain-

Bi energia mota zeuden lehen, eta aurrerantzean kogenerazio sistemak sortuko du energia osoa

zuten. Atzo egin zuten sistema berriaren aurkezpena Jokin Bildarratz Tolosako alkateak 5-6 urtetan aurrezteko denarekin kopuru hori berdintzea espero dutela azaldu zuen.

Bestalde, Pedro Zabala Guascor enpresako ingeniariak kiroledgi guztiaren energia makinak berak sortu ahal izatea lortuko dela adierazi zuen. Halaber, gisa honetako sistemak oso hedatuta daudela, eta Euskal Autonomia Erkidegoan 15 kiroledgian behintzat erabiltzen dutela azaldu zuen, «baina, hori bai, Tolosakoa kogenerazio sistema erabiliko duen handiena izango da».

Sudurgorriak bat eginik Mokolo omentzeko

Gizartea » Apirilaren 17an pailazo ezagunenak bilduko dituen ikuskizuna egingo dute Leidorren, Mokolo zenaren omenez.

I. TERRADILLOS

Maiz errepikatuko ez den irudia ikusi ahal izan zen herenegun, Gure Kaiola elkarteak: Euskal Herriko pailazo ezagunenak elkarrekin. Eta apirilaren 17ko eguerdian ere, gauza bera gertatuko da Leidorren. Izan ere, egun horretan, bere lankideen, hau da, pailazoaren eskutik, merezitako omenaldia jasoko du Mokolo zenak. Poxpolo ta Konpainiaren ekimenez, eta beste 16 sudurgorrien laguntzarekin, ekitaldi «xume eta hunkigarria» ari dira prestatzen.

Poxpolo ta Konpainiarekin batera, Pirritx, Porrotx eta Marimotx, Txirri, Mirri eta Txirribon junior, Gari, Montxo eta Joselontxo



Gure Kaiola elkarteak egin zuten aurkezpena, herenegun. I.T.

edota Potxin eta Patxin ariko dira, besteen artean. Herenegun eginitako ekitaldiaren aurkezpenaren Poxpolok azaldu zuenez, «babes eta elkartasun handia» jaso zuten Mokolo hil zenean Euskal Herriko gainerako pailazoaren aldetik. Ho-

rren harira, eta lankideen parte hartzeko eta laguntzeko nahia ikusita, guztien artean Mokolori eskainitako ekitaldi berezi bat egitea pentsatu zuten.

«Mokolori eta Txirribon, festa giroan zebiltzan batean, elkarri esan zioten egundokoa litzatekeela pailazoguztiak bildu eta elkarrekin ikuskizun bat prestatzea; orain, halabeharrez egingo dugu, baina bere omenez egin dezakegun hoberena eta politena da», azaldu zuen Poxpolok.

«Emozioz beterikoa»

Pailazo guztien artean prestatuko dute emanaldia, eta talde bakoitzak bere ikuskizunik esangura-

tsuena ere eskainiko du. «Ez da erraza hainbeste artista ekitaldi baterako biltzea, baina guztiak prestatasun osoa erakutsi dute Mokolori omenaldia egitea baita helburu nagusia», gehitu zuen Poxpolok. Halaber, gainerako pailazoen Mokolori ekitaldi berezi hau prestatzeko egin duen lana nabarmendu nahi izan zuen.

Gari, Montxo eta Joselontxok esan zuten «ohore handia eta oso pozgarria» dela eurentzat horrelako ekitaldi batean parte hartzea; «lehen aldia da guztiak biltzen gara, eta oso berezia bezain hunkigarria izango da».

Txirri, Mirri eta Txirribon junior ere herenegun aurkezpena izan ziren, eta eurentzat ere ekitaldi «berezia» izango dela eta, omenaldi polita egitea espero dutela esan zuten; «guztiok barre eta negar egitea nahiko genuke, emozioez beteriko ekitaldi bat izatea».


Pirritx, Porrotx eta Marimotxentzat ere egun «pozgarria» izango da. «Tristura eta poza nahastuko dira; bizitzan, urteak garrantzitsuak dira, baina garrantzitsuagoa da abenturak bizitzea, eta horretan aberatsa zen Mokolo».

Iñaki Odriozola Mokolo pailazo 2009ko azaroaren 9an hil zen ezustean. Anaitarra zen eta 30 urte zituen.

IRURA : aukera ona
3 logelako etxea.

Sala, sukaldea, jangela, komuna eta trasteroa,
4 balkoi, haltzariz hornituta

39.000.000 pta • Tel.: 615 702 913



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Eskola berriak badu bere lehen harri edo oinarri sendoa

Asteasu » Haur, irakasle, guraso eta ordezkari politikoei 12 hilabeteren bueltan Eskola berria amaiturik ikusi nahi dute.

ASIER IMAZ

Asteasuko Eskola berriaren lanak atzo hasi zituzten Pello Errotako ikasle, irakasle eta gurasoek, ordezkari politikoen laguntzarekin. Lehen harria edo lehen oinarria atzo kokatu baitzuten. Eskola berriari kaixo esatearekin batera, egun ezagutzen duten zaharrari agur esan zioten.

Handitu eta egokitu

Asteasu handitzen ari den herria da. Horrek behar berriak ekarri ditu eta horien artean Eskola aurkitzen da, txiki gelditu baita.

Gaur egun, Haurreskola eta Pello Errota eskola, hiru eraikin ezberdinetan banatuta aurkitzen dira: 0-2 urtekoak eraikin batean, 2tik 6rakoak beste batean eta 6tik 12rakoak hirugarren batean. Tartean berriz, erreplidea. Atzo mar-

txan jarri zuten proiektu berriarekin 0-12 urte arteko haur guztiak eremu berdinean egongo dira.

Alde batetik, Eskola handitzeko eraikin berria egingo dute eta bestetik, gaur egungoa egokitu. Horrela, Lehen Hezkuntzako eraikina birmoldatuta geldituko da: «Sukaldea, jangela, aldagelak, komunak, irakasleen gela... egokitu egingo dira eta eraikin honi lotuta, L formako beste eraikin berri bat egingo da».

Gaur egungoak bezala, berriak ere bi solairu edukiko ditu: «Haurreskola eta 6 urte bitarteko ikasleentzako gelak egingo dira eta bakoitzak bere jolas lekua izango du. Atzeko aldean dagoen frontoira eta gimnasioko aretora joateko, igarobide bat egingo da eta eraikin guztiak lotuta geratuko dira. Era berean irisgarritasun baldintzetara egokitu geratuko da guztia» azaldu zuen Iñaki Amenabar alkateak.

Langilean ondorengo egunetan hasiko dira lanean eta 12 hilabeteren inguruan Asteasuko haurrek dena prest eduki beharko lukete, aurreikuspenek hori baitiote.



Eskola zaharrari agur eta berriari kaixo esan zioten atzo Asteasun. A. IMAZ

Pello Errota berriaren inguruko jaialdi-ekitaldia

Pello Errota berriaren proiektuak 2.198.160 euroko aurrekontua du. Eusko Jaurlaritzak %63a ordainduko du. Horregatik, atzoko jaialdi-ekitaldira Hezkuntza Sailak ordezkari bat bidali zuen Donostiatik: Carlos Rivero. Ekitaldi guztia euskaraz burutu zenez, Riverok itzultzaile baten laguntza behar izan zuen.

Bertsoak, kantua, idatzia...

Jexux Mari Irazuk eman zion hasiera jaialdiari, hiru bertso kantatuz. Jarraian, hirugarren mailako haurrek etxe bat nola eraikitzen den erakutsi zuten, kantu eta guzti. Ondoren guraso eta ikasle helduegoen txanda iritsi zen. Hauek, Kepa Fernandez de Larrinoaren idatzi bat irakurri zuten zatika.

Idazlanaren atal bakoitza edukiontzi batean sartu zuten azkenik. Mailaz maila, ikasleek ere euren mezuak edukiontzi berean sartu zituzten.

Ekitaldian esanak

Ekitaldiaren amaieran edukiontzi lurpean sartu eta harriz estali zuten. Lehenik Carlos Riverok

hartu zuen pala. Ondoren Asteasuko alkateak, Iñaki Amenabarrak. Gurasoek, ikasleek eta hurbiltzen zen guztiak edukiontzi zura eta zuloa estali zuten, Pello Errotaren lehen oinarri sendoa sortuz.

Amaierako ekitaldi honen aurretik ordea, Eskolako zuzendariak eta Asteasuko alkateak euren mezuak helarazi zituzten.

Zuzendariak agintariei hurrengo urterako lanak amaituta egotea eskatu zien, umore ukitu batekin. Alkateak besterik ere esan nahi izan zuen: «Guk udaletxetik ikastetxe berriari opa dioguna. Pello

Errota ikastetxe berritik pasatzen diren umeak jatorrak, euskaldunak eta aberria maiteko dutenak izatea opa diogu. Mundu hobe baten alde lan egingo dutenak, hain zuzen.

Baita ere ikastetxe honetatik atera daitezela Nobel saridun bat; Retegi baino txapela gehiago irabaziko dituen pilotari bat; mundu osoan ezaguna izango den kirolari bat; Euskal Herri batu eta askeko lehendakari bat eta munduko pobreen egoera hobetuko duen pertsona bat. Hauek dira gure desioak».



Carlos Rivero, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren ordezkaria, pala eskuetan duela. A. IMAZ

Tolosaldeko eta Leitzaldeko komunikabide batek
Kazetaritzan edota Euskal Filologian
lizentziatuak
edo ikasleak behar ditu
lan poltsa osatzeko.

Interesatuak deitu **687 41 00 32** telefono zenbakira edo bidali curriculum-a **tolosaldean@tolosaldeko hitza.info** helbidera

Saralegik final «gogorra» aurreikusitako arren, irabazteko aukerak dituztela dio

Amezketak Pilotari amezketarrak gaur jokatu du Eskudero bikote duela, Bigarren Mailako Binakako finala.

IMANOL GARCIA

Lehenengo finala izango du Ekaitz Saralegi pilotari amezketarrak Bigarren Mailako Binakako Txapelketan. Eskudero izango du atzelari lanetan gaurko norgehiagokan, Iruñean. Labrit pilotalekuan aurrez aurre izango dituzte Arretxe II.a eta Zabala. 17:30ean hasiko den pilota jaialdiaren bigarren partida izango da finala. Aurretik, Irujo-Eulategi eta Olaizola II.a-Aprai-zek jokatu dute. Saralegik garbi du partida «gogorra» izango dela, baina aukerak izango dituztela irabazteko.

Finalera iristeko bidea ez da erraza izan. Retegi Bi eta Zezilio-ren kontra jokatu du partidaren irabazleak finalerdietara pasatzen zen: «Irabaztea lortu genuen baina ondoren Lasa eta Merinoren aurkakoa etorri zen. Beraiek lehenengo gelditu ziren eta gu laugarren. Beraiek ziren favoritoak, baina partida on bat egin genuen eta irabaztea lortu genuen».

Gaur arratsaldean aurrean Arretxe II.a eta Zabala izango dituzte. «Bikote gogorra da. Biak defentsan ondo aritzen dira eta Zabala atzelariak asko ematen dio. Partida zaila izango da, baina finalerdia ere zaila genuen eta irabaztea lortu genuen. Finalerako baditugu esperantzak. Gurea ondo egiten badugu, baditugu irabazteko itxaropenak». Partida nola jokatu behar duten galdetzean, Saralegik dioenez, «normalean, ateratzen dena izaten da. Hasieratik gogor aterako dira, beraz, eusten saiatu beharko dugu eta aukerak daudenean tantoak egin».

Zabala Bigarren Mailako «atzelaririk onenetakoa» dela dio amezketarrak. «Arretxe ere pilotari oso gogorra da, berari tantoa egitea oso zaila da. Bikote oso ona osatzen dute eta hasieratik esan genuen bikote handia egingo zutela. Zabalak ia finala jokatu zuen. Baina partida batera edozer gauza gertatu daiteke eta gu irabaztera joango gara».

Eskuderoengan konfiantza

Ez du askotan jokatu Txapelketa Saralegik. «Batzuetan Lehenengo Mailakoan ordezko aritu naizelako, besteetan ezin izan delako. Aurtengoa batzuk Lehenengo



Ekaitz Saralegi, herriko plazako frontoia atzean duela. E. MAIZ

Mailakoan sartzeko aukerakin geundela esan ziguten, baina azkenean, hor jokatzeko ez zutenek Bigarren Mailako jokatu zutela esan zuten. Txapelketa ona egiteko asmoa azaldu zuten bi enpresak eta horrela izan da, maila handikoa egin dute eta kasualitatez Asegarceko bi bikote sartu gara finalean».

Eskudero bikotearekin ondo

ematen da bai frontoian bai kanpoan ere: «Laguna dut eta hori nabaritzen da. Biok konfiantza dugu elkarrekin. Oso atzelari segurua da eta dagoeneko hirugarren finala du, beraz, kailua eginga izango du. Oso Txapelketa ona egin du eta ea finalean ere bere segurtasuna erakusten duen».

Pilotalekuaren aldetik ez du kezkarik amezketarrak. «Labrit fron-

toi ona da. Normalean Asegarcek larunbatetan han jokatzeko dituzte partidak eta azken aldiaren tokatu zait jokatzeko. Finalean frontoia aitzakiarik ez dugu izango».

Zaleak ere izango ditu babesa eta animoak ematen. «Egia esan Bigarren Mailako finala izateko Amezketatik jende asko ari da sarrerak hartzen». Txapelketa guztian herriko gazteak joan dira animoak ematera eta «hori eskertzekoa da», dio Saralegik. Finalera animatuta dago eta gero ea nik frontoian txapela irabazten dudana».

Ibilbide berezia Txapelketan

Txapelketan ibilbide berezia izan du Saralegik. Bigarren mailakoan hasi zen, bost partida jokatuaz. Gero, Asier Olaizolaren baja bete zuen Lehenengo Mailako Txapelketan hiru partida jokatuaz. Aurreneko aldia izan da parte hartu duena Lehenengo Mailakoan.

Kasualitatez bere gustuko pilotaria den Titinen aurka jokatzeko tokatu zitzaion lehenengo partidaren. «Esperientzia polita izan zen. Lehenengo aldia zen Titinen aurka jokatzeko genuena. Logroño izan zen partida eta galdu egin genuen, baina nik uste dut nahiko partida txukuna egin genuela». Beti izan du Titin gustuko pilotaria, «bai frontoian nola saiatzen den ikusita eta bai jokatzeko duen modua ikusita».



SARIDUNAK

① Erromeria

Udaberri dantza taldearen Erromeriaren baitan dagoen **afarirako**

Gaur, 21:00etan
Tolosako zerkausian

Elena Baraibar Aizeburu (IBARRA)
Ticket-ak zerkausian bertan




② Bertso saioa

Tolosaldea Sahararekin
elkarrekin antolatua
Bihar

18:00ean Beotibar pilotalekuan

Angel Mari Munduate Artola (TOLOSA)
Maria Jesus Galarza Arregi (IBARRA)
Imanol Odriozola Galarza (IBARRA)
Maria Dolores Saizar Amondarain (IBARRA)
Sarrerak leihatilan bertan



③ Sarrerak

Mokoloren omenez ospatuko den jaialdirako **sarrerak**

Gaur, 12:00etatik aurrera
Tolosako Leidorren

Lurdes Zabala Murua (TOLOSA)
Ticket-ak leihatilan bertan



④ Sarrerak

KEN 7 taldeak eskeiniko duen kontzerturako

Apirilak 23 ostirala
20:30etatik aurrera
Tolosako Leidorren

Iker Telletxea Tarragona (TOLOSA)
Mila Otamendi Egiguren (TOLOSA)
Ticket-ak leihatilan bertan



E Elkarrizketa

JOXE MARI MENDIZABAL › Aizkolaria

«Lan txukuna egiteko esperantzarekin noa Tolosara»

Aduna » Bihar 12:00etan Tolosako zezen-plazan, Olasagastiren aurkako apustua jokatu du. Lau kanako zutika moztu beharko dituzte.

ENERITZ MAIZ

Joxe Mari Mendizabal (Aduna, 1947) aizkolariak orain dela hila-bete batzuk, apustu berri bat egiteko erronka botatu zuen eta Joxe Mari Olasagasti igeldoa izan zen apustua onartu zuena.

Lau kanako enbor zutikako modalitatean moztu beharko dituzte bihar eguerdian. Bakoitzak 6.000 euro jarri ditu eta Joxe Mari Mendizabalek 4 minutuko aldea izango du.

Iritsi da plazara ateratzeko eguna. Zer moduz sentitzen zara?

Gerturatzaren neurria beti izaten da zerbait baina ez nago oso urduri. Suerte txar pixka bat ere izan dut; 40 bat egun izango dira belauanean golpe bat hartu nuela eta 20 bat egun ezer egin ezin nuela egon nintzen. Antibiotikoak hartzen egon nintzen eta pixka bat atzeratu nintzen, baina orain ondo daukat belaua. San Jose bezperan berri, euskal telebistakoak izan nituen eta grabaketa egiteko enbor bat moztu nuen kamiseta hutsen jarrita, izugarrizko haizea zebilen eta nahiz eta azkar babestu hoztu edo egin nintzen eta gerrian puntara bat izan dut. Baina orain guztiz errekuuperatuta nago eta gustura nago.

Zein entrenamendu mota egin duzu?

Astean bi edo hiru egunetan entrenamendu luzeak egiten aritu naiz eta gero atseden egunak egiten ditut, hau da, aizkoran egin gabe baina korrika, ibiltzera edota gimnasiora joaten naiz. 80-90 minutuko entrenamendu luzeak egiten ditut aizkoran eta ongi erantzun dut eta ea bihar ere horrela suertatzen den.

Zenbat denbora beharko duzuela aurreikusten duzu?

Ez dakit bada, 95-100 minutuk jaistea zaila ikusten dut. Gaur bertan ere, egurra kalitatez ona zen baina barruan izugarrizko adarra atera zait entrenatzen ari nintzela. Eta horrelako bat ateraz gero, 2-3 minutu galtzeko ez da ezer behar. Nik eman behar ditut enborrak baina oso zaila da egur onak bilatzea. Metro bat eta 60 zentimetro-

ko luzera duten egurrak eraman beharra dauzkate eta horrelako enbor luzean zailagoa da egur onak aurkitzea. Leku askotan ikusi ditut enbor onak baina metro baten inguruko neurriarekin eta bertan utzi behar izan ditut, hortik gora zaila da.

Nolatan animatu zara 63 urterekin mota honetako desafio bat botatzen?

Nire adinerako marka bat egin behar nuela nuen buruan eta Adunan hiru 80 ontzako ebakitzen aritu nintzen lehengo urtean eta harrezkero entrenatzen ari nintzen. Entrenamendu luzeak egiten nituen eta burura etorri zitzaizkidan lau kanako zutik ebakitzea. Aurrena bakarrik joatea pentsatzen nuen, bai-

«Zutikako modalitatean teknikak garrantzi handi du, batez ere, kolpeak ematerakoan»

na benetan pentsatzen jartzean, lan guzti hori bakarrik egiten ari zanean begira dagoen jendea asperitu egingo zela konturatu nintzen eta orduan, alde pixka bat hartuta desafioa botatzea erabaki nuen. Eta norbaitek onartuz gero, apustua begira egon behar duenarentzako hobe izango zela. Eta lau minutuko abantaila jarrita bota nuen eta Olasagasti atera zen.

Eta nola ikusten duzu aurkaria?


Zutikako enborrean eta gutxi ari zanean zegoenaren kontua ematen zuen baina entzuten ari naiz azken

«Metro bat eta 60 zentimetroko enbor luzeetan zailagoa da egur onak aurkitzea»

aldian asko saiatu dela eta asko hobe duela. Horrelako kontuak entzuten dira eta ez dakit, bihar ikusiko da zer gertatzen den.

Enborra zutika moztu behar izatea lan gogorra izango da.

Bai, lan oso gogorra da, bai hanka eta bai gerriarentzako ere. Eta kontu handiarekin ibili beharreko mo-



HITZA

dalitatea da. Teknikak garrantzi handia du, kolpeak ematerako orduan batez ere.

Azpeitia ala Tolosa. Azkenean Tolosako zezen-plazan izango da.

Kantabriko taberman apustua ixtean, bi zezen plazak jarri genituen. Aizkora kontuan askok esaten dute Nafarroa aldetik jendea gerturatzeko eta, Tolosa gertuago eta hobeto geratzen dela. Baina orain egun gutxi proba bat egitera joan

nintzen zezen plazara eta gaizki zegoen, batere zaindu gabe zegoen. Garbi esango dut, uste dut Tolosako Udalak plaza hori ez lukela horrela eduki behar. Eta kartelak egin baino lehen Tolosara proba hori egitera joan izan banintz, ez zen bertan jokatu eta Azpeitikora joango ginen, hori seguru esango nuela.

Zer esan dizute ingurukoek?

Neroni nago animatuta eta ingurukoak ere bai. Lan on bat egiteko

esperantzarekin noa eta nahiz eta 63 urte eduki aizkoran jarraitzeko gogoarekin nago eta ez dut pentsatu aizkora uzterik.

Nahikoa ikusten al duzu lau minutuko aldea?

Lau minutuko aldea kentzen hasiz gero ez da alde handia. Hobe hartuta emanda baino. Baina niri adar bat edo bi ateraz gero, eta berari bategere ez, denbora hori joango da, ez dago lau minutuko alderik. Bestalde bera askoz gazteago da.



Martxoak 28 igandea
18:00
tolosako beotibar pilotalekuan

bertsolariak:
uxuealberdi - ametsarzellus
sustraiolina - andoniegaña
unaiaiturriaga - ionmaia
aitormendiluze - aitorsarriegi

gai jartzaila:
amaiaagirre

Sarrerak:
aurrez 10 euro
egunean bertan 12 euro

Salgai:
-Azpeitiko eliku zenroan
-Lasarteko jalgi tabernan
-Tolosako orbela, raku eta
ikatza tabernetan
-kutxanetan



Bi bizitzako zortzi etxe eta bakarreko bat egiteko asmoa dute. E. EZEIZA

Babeseko hamazazpi etxebizitza berri eraikiko dituzte laster

Berrobi » Alontso-Agotzanea eremuan egindako proiektua onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

ERREDAKZIOA

Udalak eskatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu du herriko Hiri Antolaketa Arauak aldatzea Alontso-Agotzanea eta Telleria-Antzi eremuei.

Aldaketarekin, 17 etxebizitza berri egin ahal izango dira, horietatik 16 bina familiako zortzi etxetan, eta beste bat familia bakarreko etxe batean, denak Alontso-Agotzanea eremuan. Jon Jauregi alkateak azaldukoaren arabera, «herriarrek lehentasuna izango dute hauek erosteko garaian, baina inguruko herrietako ere hauetako etxe bat eskuratzeko aukera izango dute.

Oraindik proiektua erabat amaitzeaz baldin badago ere, dagoeneko promotore batzuk ari dira bertan lanean. Hala, Udalak promotore

rearekin sinatutako hitzarmen bati esker, hamazazpi etxebizitza horiek tasatuak izango dira, eta ezingo dute 312.000 eurotako salneurria gainditu. Bakoitzak 180 metro² neurtuko ditu, eta etxe inguruan, lorategitxo bat izango du.

Berrobiko Udalak azken urteetan proiektu ugari eman ditu aurrera, etxebizitza kopurua gehitzeko, eta berribitarrak bertan bizitzeko. Duela bi urte eraiki ziren azkenak. 20 bizitzako blokeak egin zituzten orduan, horietatik lau, babesekoak zirelarik.

Arau berritatzaillean zenbait aldaketak

Foru Aldundiaren baimena izateko, Berrobiko Udalak irisgarritasunari buruzko aldaketa batzuk egin behar izan ditu sektore horren hirigintza agerietan. Aldaketa horretan sartuta dago Jose Maria Goikoetxea kaletik Alontso-Agotzaineraino iritsiko den oinezkoen bidea. Lehenik Ongi Etorri-Toki Alairaino helduko da bidea, eta bigarren fase batean, etxegune berriraino.

«Eredu garelako helduen artean ere landu behar dira emozioak»

GABI GOIA » Adimen emozionalean aditua

Leitza » Denok bat guraso elkarteak antolatuta, adimen emozionala lantzeko tailerra izango da datorren hilean.

ESTIEZEIZA

Leitza Denok Bat guraso elkarteak adimen emozionalaren inguruko tailerra antolatu du. Ordu eta erdiko hiru saiok osatuko dute ikastaroa, lehena apirilaren 15ean izango da, bigarrena 22an eta azkena 29an. Hezkuntzan eta arlo honetan urte asko lanean daramatzan Gabi Goia izango da tailerra zuzenduko duena. Jardunaldiak, gurasoei ez ezik, gainontzeko herriarrei ere zuzenduta daude. Honenbestez, interesatuek Amazabal ikastetxean eman dezakete izena hilaren 30a bitartean.

Zehazki, nola egituratuta egongo da tailerra?

Hasteko teoria pixka bat egongo da, azaltzeko, zer den adimen emozionala, eta zertan datzan, eta zertarako den. Bestetik, ariketa praktiko erraz batzuk egingo ditugu, eta bertan praktikan jarriko dugu ikasitakoa.

Azken aldian, asko hitz egiten da adimen emozionalaz. Baina labur esanda, zer da hau?

Zuk esan bezala, azken boladan asko hitz egiten da adimen emozionalaz, eta adimen intelektualari aurre egiteko bezala sortu da. Bigarrenaren arabera, horrela jaiotzen gara, eta genetikoki daukagun gauza bat da, estatikoa. Baina adimen emozionalaren kontzeptua, intelektualaren osagarri da. Azelezi eta trebetasun multzo bat da, gure emozioak nahiz sentimenduak kontrolatzen laguntzen diguna, besteak motibatzen erakusten diguna, autoestima... Nik esaten dudana da, pertsona bat integralki hezteko dena eman behar dela, alde arrazionala eta intelektuala, nahiz emozionala. Baita fisikoa ere. Hori dena landuz gero, pertsona integral osoa izango genuke.

Ikastetxeetan asko lantzen da



HITZA

adimen emozionala, baina etxetan?

Ikastetxeetan lantzen da, baina haur eta Lehen hezkuntzan bereziki. Arlo horretan, oraindik asko dago egiteko. Bigarren hezkuntzan eta Batxilergoan edukiei ematen zaie garrantzia, hala, sentimenduak eta harremanak ahaztu egiten ditugu. Honenbestez, ikastetxeetan, irakasleak ez bageaude behar bezala formatuta, zer esanik ez etxetan. Guraso batzuk bereziki dute eta emozionalki oso presaturatuak daude, baina beste batzuk ez, horregatik komeni da hauek ere heztea. Hala ere, guraso perfekturik ez dago. Adimen emozionalak dituen alde onen artean dago, ikasi daitekeela, eta denborarekin hobetzen joan.

Ikastaro hauek, hala ere, abiapuntu dira, gero, egunerokoan egin behar da lana ezta?

Hori da, hiru egunetan ezin da dena erakutsi. Tailer hauetan, bakoitzak bere arazoez eta bere beharrez hitz egiten du. Horrez gain, komunikazioaz mintzatzen gara. Baita, sentimenduak adierazteaz, bakoitzaren burua ezagutzeaz, amorua kontrolatzeaz eta gatazkez. Bitartekaritza asko landu duen gaia da, eta honen inguruan ere egiten dugu lana.

Adimen emozionala haurren arteko gatazkei ez ezik, helduenei ere zuzendua dago.

Batez ere helduen artean eman be-

har litzateke hau, gu seme-alabentzat ere bai. Eguneroko gatazkek hitz eginez konpontzeko gai baldin bagara, hau ikasiko dute haurrek.

30-40 urteko bati, beste modu batera jokatzeko esatea zaila da.

Ez diet horrelakorik esaten, eta badakit, aholkuek gutxirako balio dutela gehienetan. Etxeko egoerak edo arazoak ekartzen dituzte taldera, eta hauei konponbidea ematen saiatzen gara. Nik kontatzen dudan teoriarekin kontrastatzen dute beraiek egiten dutena.

Ba al dago, guraso ia guztiek egiten duten akatsik?

Bai, esaterako, gurasook uste dugu seme-alaben arazoak gure konpondu behar ditugula. Baina hori ez da horrela. Arazoa zein den galdetu behar diogu haurrari, eta honen konponbidea bilatzen lagundu, galdetuz eta hitz eginez. Buelta eman eta konponbidea bideratu behar ditugu, baina ez irtenbidea gure eman. Bestetik, batez ere, haurrak txikiak direnean, arauak behar dituzte, eta hauek betetzen ez dituztenean ez da ondoriorik egoten. Hala, arauak betetzen ez dituztenean, askotan, gurasoak sustan jartzen gara. Baina une horietan aurretik, gure burua kontrolatzen ikasi behar dugu, eta araua betearazten. Hala ere, familia bakoitza mundu bat da eta bakoitzak gauza ezberdinari ematen dio garrantzia.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Herriko gazteek abian dute jada topagune birtuala

Zizurkil » Udalak 'gaztezulo-zizurkil.net' bloga abiarazi du; bertan ekitaldi desberdinen berri izango dute, besteak beste.

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak teknologia berriekin bat egin nahi izan du eta blog berria sortu du: gaztezulo-zizurkil.net. «Batez ere, herriko hainbat gaietan gazteek parte hartze zuzena izatea nahi dugun», argitu zuen Maria Angeles Lazkano alkatea.

Oscar Picazok, bloga egin duen taldeko kideetako batek, esanda-

koaren arabera, «bloga topagune bat da, gazteek haiantzako diren ekintzak, berriak, txangoak eta abarren berri izan dezaten».

Izan ere, gazteek gaur egun geroz eta gehiago erabiltzen dituzte komunitate birtualak, hau da, facebook, twitter, tuenti edo flickr bezalakoak, haien kezak partekatzeo eta horiek ere blogean izango dira.

«Blegoan alde batetik, udaletxe-ko dinamizatzaileek albiste gisa jarriko dituzten Udaleko proposamenak egongo dira. Deialdi horietan lotutako facebook, tuenti, twitter eta flickr-ekin zenbait esteka ere egongo dira, post berri bat blogean jartzen denean automati-

koki hor bertan kokatuko delarik. Beraz, hor bertan komunitate bat badago horren berri izango dute guztiek. Bestetik, eta interaktibotasun hori lortzeko, alderantzizko bidea ere egongo da, hau da, Gaztezuloko facebook-eko kontuan norbaitek azalpenen bat sartzen badu blogean daukan leihatilan agertuko da», agertu zuen Picazok.

Blogaren arduradunak horrenbeste komunitate zergatik sartu dituzten ere azaldu zuen: «modan daudelako eta eskaintza zabala dagoenez guztia bateratu behar delako. Youtuberekin lotura bat ere badago, oraindik ez dago martxan, hala ere. Hor, printzipioz, dinamizatzaileak sartuko ditu bideoak eta bakarrik iruzkinak sartu ahal izango dira». Hau guztia, dena den, «mamia» besterik ez da, aurrerantzean gazteei esker izango baita blogak «benetako bizia».

Izaskun Sarasolak, Gaztezuloko dinamizatzaileak, bere aldetik blogaren helburua «Zizurkilgo gazteek topagune bat izate» dela esan zuen, horrela, «elkartu eta ekintza aktibo batzuk egin ahal izateko».



Sarasola, Lazkano eta Picazo blogaren aurkezpenean. I. GARCIA

Laburrak

Festetako hurrengo bilera hilaren 29an izango da

ANOETAN » Herriko festetako hurrengo bilera datorren astelehenean, hilak 29, izango da 19:00etan udaletxean. Jai batzordeak herriko taldeei eta herritar orori bertan parte hartzeko gonbitea egiten die.

'Planetaren ordua' n hartuko du parte Udalak

TOLOSA » Udalak gaur bertan 20:30etik 21:30era izango den 'Planetaren ordua' n hartuko du parte. WWF elkarteak proposatutako ekimena da klima-aldaketaren ekintza irmoak eskatzeko. Horiek horrela, gaur aipatu orduan argiak itzaliko dituzte Zerkausion, udaletxean, Musika Eskolan, Kultur Etxeko Errotan, Usabal kiroldegian eta Berazubín. Antolatzaileek argitu dutenez, ekimenaren helburua «aldaketa klimatikoaren mehatxua berri herritarrei ematea» da.

Auzitegiak apirilaren 12an jakinaraziko du epaia

'Egunkaria auzia' » Efe berri agentziak zabaldu du berria Espainiako Auzitegi Nazionalako iturriak aipatu.

ERREDAKZIOA

Espainiako Auzitegi Nazionalako iturriek jakinarazi dutenez apirilaren 12an emango du auzitegiak *Egunkaria* auziko epaia, Efe berri agentziak atzo argitaratu zuenez. Iazko abenduaren 15ean hasi eta joan den otsailaren 1ean bukatu zen han *Egunkaria*-ren itxierari buruzko epaiketa; Javier Gomez Bermudez, Ramon Saez Valcarcel eta Manuela Fernandez epaileek osatzen dute epaimahaia. Miguel Angel Carballo fiskalak eta defen-

tsak Joan Mari Torrealda, Iñaki Uribe, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleaga auzipetuen absoltzioa eskatu zuten epaiketan, haien aurkako frogarik ez dagoela irizita.

Dignidad y Justicia eta AVT herri akusazioek, aldiz, 12 eta 14 urte arteko kartzela zigorrak eskera egin zituzten auzipetuentzako. 2003ko otsailaren 20an itxi zuen *Egunkaria* Guardia Zibilak, Juan del Olmo Auzitegi Nazionalako epaileak aginduta, kazetak eta ETak lotura zutelakoan.

Itxierari buruzko kasuaz gain, auzi ekonomikoa ere badago, eta zortzi lagun epaituko dituzte -ez dago epaiketa hasiera eguna jarrita-. Diru kontuak faltsutzea eta zerga iruzurra egin izana egotzi diete.

DISEINATZAILEAK (LP2010-DIS erreferentzia)

BERRIA egunkariak, Diseinu eta Publizitate Sailetan ordezkapenak egiteko lan poltsa osatu nahi du.

Eskatzen da:

- Diseinu grafikoko ikasketak izatea.
- Diseinu grafikoa esperientzia izatea.

Baloratuko da:

- FreeHand, PhotoShop eta QuarkXPress programak erabiltzen jakitea.
- Egutegi eta ordutegi malgutasuna izatea.

Interesatuta bazaude, bidali curriculum vitæa gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehaztuz, **apirilaren 15a** baino lehen.

Mahala
BARRERIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserría - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

TXOTX

Rezola Tel.: 943 556 637 Astigarraga
Ipintza baserría - Savito Zaharra www.rezolasagardologia.com

Oialume Zar Tel.: 943 552 938 Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokik gertu)

Akelenea Tel.: 943 333 333 Astigarraga
Oialume bidea 57 www.akelenea.com

Gurutzeta Tel.: 943 582 242 Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrera Ergobatik) www.gurutzeta.com

Lizeaga Tel.: 943 468 290 Astigarraga
Gartziategi baserría, Martatzen postakalea, 139

Mina Tel.: 943 555 220 Astigarraga
Txartokietan postakalea

Gartziategi Tel.: 943 469 674 Astigarraga
Dovosilla Astigarraga bidea, 5,8km. www.gartziategi.com

Elutxeta Tel.: 943 556 981 Urnieta
Ortaran auzoa, 34 - Elutxeta baserría

Larre Gain Tel.: 943 555 846 - 616 287 847 Hernani
Larre-Gain baserría, Ertelotz auzoa

Otsua-enea Tel.: 943 556 894 Hernani
Oskilaga auzoa

Iparragirre Tel.: 943 550 328 Hernani
Oskilaga auzoa, 10 www.iparragirre.com

Urdaira Tel.: 943 372 691 Agnaga-Urdail
Urdaira baserría

Arratzain Tel.: 943 366 663 Arratzain zahar baserría Urdail
www.agroturismoarratzain.com / info@agroturismoarratzain.com

Urbartarte Tel.: 943 180 119 Ataun
Ergoiena auzoa

Ohiarte Tel.: 943 501 013 Zeran
Ohiarte baserría

Isastegi Tel.: 943 652 964 Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegi.com isastegi@isastegi.com

Begiristain Tel.: 943 652 837 Bartzegota
Ibarretxe baserría

Zabala Tel.: 943 690 774 Aduna
Goragartza baserría (Goberu auzoa) www.zabala.com info@zabala.com

Sarasola Tel.: 943 690 283 Antsoain
Bebalera auzoa

Ola Tel.: 943 623 130 Iruñe
Mizaka auzoa, 102

Lindurrenborda Tel.: 948 637 212 Lesaka
Nabaz auzoa, 8

DIEZ Autobusak

Autobusak eta mikrobusak zerbitzu berria
Maldia eta Leizorako lineak
Guztuzkoak, txandak, lasterrik, ingurugonak...

Mundakal kalea, 24 | Tel.: 943 28 84 16 | Fax: 943 37 11 37 / 20012 GONOSTIA
Posta elektronikoa: maldia@autocoresdiez.net



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoeta/leitza@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza/leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Aberri Eguna.** Ikurrina balkoietan zintzilikatzea eskatu dute.

Dantza

■ **Tolosa.** Dantzari Txiki Eguna ospatuko da gaur. Goizean Alde Zaharreko kaleetan ibiliko dira, eta elkarrekin bazkaldu ostean, 16:30ean Plaza Berrian elkartuko dira. 20:00etan triki-txaranga potea hasiko da.

Musika

■ **Tolosa.** Gas Drummers eta Same Old taldeen kontzertua gaur Bonberenean, 22:30etan.
■ **Tolosa.** Musika Bandaren kontzertua gaur Berdura Plazan, 19:00etan.

Pilota

■ **Tolosaldea.** Aurrera-Saizak Berria Txapelketaren finala jokatu du gaur Hernanin, 10:30etatik aurrera.

Bertsolaritza

■ **Tolosa.** Bertso Jaialdia Sahararen alde bihar Beotibarren,

18:00etan. Bertsolariak: Uxue Alberdi, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Ion Maia, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi. Gai-jartzailea: Amaia Agirre.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40..
■ **Lekunberri.** Mendia M. I. Aralar kalea, 25. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala
08:30. Ur eta Lur. **09:00.** Alex eta Alexis. **09:30.** Tolosaldean Gaur.
10:00. 28 klip. **10:30.** Ilunpean.
11:00. Ikusten. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Kiroleroa. **12:30.** Zahar berri. **13:00.** Nonochan.
13:30. Tolosaldean Gaur. **14:00.** Klik. **14:30.** On ein! **15:00.** Planik bai. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Eskuokin.
Lau orduko errepikatuko dira.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



Jaialdiarekin amaiera Asteari

VILLABONA Erniohea Institutuak antolatzen duen Euskararen Asteari amaiera eman zioten atzo Gurea aretoan egindako jaialdiarekin. Ikasleak izan ziren protagonista eta hainbat alor ukitu zituzten: bertsoak,

musika eta dantza. Jaialdiaren aurretik, Institutuan bertan Xiba kirol jokoen tailerra, Mus eta Xake Txapelketa, ikasleen eta irakasleen dantza saioa eta haurrentzako izan zituzten. I. GARCIA

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	